ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2017ko uztailaren 12a, asteazkena • 79 zk.

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BERANTEVILLAKO UDALA

Bake epaile titularraren eta ordezkoaren karguak betetzeko deialdia

Kontuan izanik Berantevillako egungo bake epailearen agintaldia bukatzear dagoela, udalbatzaren ekainaren 29ko erabaki bidez deialdi publikoa egiten da Berantevillako bake epaile titularraren eta haren ordezkoaren karguak betetzeko. Hori guztia ekainaren 7ko 3/1995 Erregelamenduak, bake epaileenak, 4. eta 5. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz.

Eskaera aurkeztu ahal izango dute ekainaren 7ko 3/1995 Erregelamenduak, bake epaileenak, 1.2 artikuluan xedatutako betekizunak betetzen dituzten interesdunek. Hona hemen betekizunok: espainiarra izatea, adinduna eta botere judizialaren lege organikoak 303. artikuluan ezarritakoren baten mende ez egotea.

Udalean aurkeztuko dira eskaerak, udal idazkaritzan eskura daitekeen inprimakian, eta, horretarako, 30 egun baliodun izango dira deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Berantevilla , 2017ko uztailaren 4a

Alkatea
JUAN ANTONIO SANTAMARÍA FAJARDO

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432